*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Murgian, bi mila eta hemeretziko ekainaren hamarrean, goizeko zortziak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, premiazko Ezohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

**ALKATEA**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
JUAN MANUEL LARRAZÁBAL NÚÑEZ JN. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)
LUIS ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA JN. (EAJ-PNV)
SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)
JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)
**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA**
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

**1.- PREMIAREN BERRESPENA.**

En Murgia a diez de junio de dos mil diecinueve, siendo las ocho horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Extraordinaria urgente en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DON JUAN MANUEL LARRAZÁBAL NÚÑEZ (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)
DON LUIS ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA (EAJ-PNV)
DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)

DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)
**CONCEJAL QUE NO ASISTE**
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- RATIFICACIÓN DE LA URGENCIA.**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

Udalbatzak aho batez onartu du premia.

**2.- 2019KO MAIATZAREN 9 ETA 24AN IZANDAKO OHIKO ETA EZOHIKO BILKUREN AKTAK, HURRENEZ HURREN, ONARTZEA.**

Maiatzaren 9 eta 324ko Ohiko eta Ezohiko Bilkuren aktak ikusirik, onartzea erabaki du Udalbatzak aho batez.

**3.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

Alkatetzak aurtengo 2019.05.07ko 151. zk.ko dekretutik 2019.06.07ko 190.era arte eman dituen xedapenen berri eman da. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da, Sautu zinegotzi jaunak galdetutako hainbat dekreturen inguruan alkateak informazioa eman ondoren.

**4.- POSTA OFIZIALA**

**4.1.- Arabako Foru Aldundia:**

- Ingurumen eta Hirigintza Sailak, ibaiaren 8 pasaguneetan hodia ordezkatzeko eskatuz Udalak bidalitako idazkiari erantzun dio.

- Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Sailak: Lukiano, Aperregi eta Giliernako hondakin-uren saneamendu eta arazketaren proiektuko nahitaezko desjabetzearen aktak bidali ditu; eta Murgiako 29/7 lursailaren inguruko lanak egiteko Verges herriarekiko senidetzearen berri ematen duen seinalea jartzeko baimenak igorri ditu.

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak honako hauek bidali ditu: hiri eta landa OHZ eta ondasun berezietako OHZ erroldak; udaletxeko udal-jabetzako lokalak ENBri lagatzeko administrazio-emakidaren

La Corporación por unanimidad aprueba la urgencia.

**2.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS ORDINARIA Y EXTRAORDINARIA CELEBRADAS LOS DÍAS 9 Y 24 DE MAYO DE 2019 RESPECTIVAMENTE.**

Vistas las actas de las sesiones ordinaria y extraordinaria celebradas los días 9 y 24 de mayo respectivamente, la Corporación acuerda aprobarlas.

**3.- DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el decreto nº 151 del 07.05.2019 al nº 190 del 07.06.2019, dándose la Corporación por enterada, previa información suministrada por el Alcalde sobre determinados decretos sobre los que pregunta el Concejal Sr. Sautu.

**4.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.**

**4.1.- Diputación Foral de Alava:**

- Medio Ambiente y Urbanismo contesta el escrito remitido por el Ayuntamiento que solicita la ejecución de la sustitución de la tubería de abastecimiento en los 8 pasos del río.
- Infraestructuras viarias y movilidad remite actas de expropiación forzosa del proyecto de saneamiento y depuración de aguas residuales de Lukiano, Aperregi y Guillerna, remite autorizaciones para ejecutar las obras del entorno de la parcela 29/7 de Murgia e instalación de señal informativa de hermanamiento con el pueblo de Verges.
- Hacienda, Finanzas y Presupuestos remite padrones del IBI de urbana, rústica y bienes especiales, remite copia del contrato de concesión administrativa a la OCA de locales de titularidad municipal de la Casa

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

kontratuaren kopia, sinatuta eta zigilatuta; agentzia exekutiboaren apirileko likidazioa.

- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak: Toki Administrazio eta Finantzetako Lurralde Kontseiluaren bilera deitu du 2019.05.20rako; 2019ko obra txiki eta bizilagunen deialdiaren ebazpena jakinarazi du; eta Giliernako biltegia hobetzeko lanetarako Udalak eskatutako diru-laguntza eman duela helarazi du.
- Gizarte Zerbitzuek estatistika-datuak eskatu dituzte.
- Nekazaritza Sailak, partikular baten zuhaitzak mozteko baimena jakinarazi eta honako akta hauek bidali ditu: Olmos Forestal S.L. eta Forestal Frías S.L. enpresei esleitutako Aldarro eta Aretxaltuagako aprobetxamenduak entregatzekoak, bigarren enpresa horri esleitutako Pepetxiki eta Fresnaleko motzondo-kontaketarenak eta Aretxaltuagako lotearenak.

**4.2.- Eusko Jaurlaritza:**

- Osasun Publikoak, 2019ko ekainaren 15ean, larunbata, udal-igerilekuak ireki baino lehen bete beharreko erantzukizunpeko adierazpena eta osasunari buruzko kartelak (*bizi tabakorik gabe, zuk aukeratu noiz*) bidali ditu.
- - Osakidetzak, Osasun Zentro berria eraikitzeko baimen-eskabidea aurkeztu du.
- Arkautek 2019/2020 ikasturterako prestakuntza-eskaintza bidali du.
- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak Udal Gizarte Ekintza Berrituz programa aurkeztu du. Eta Lanbidek, 2019ko ekaineko DSBE nomina bidali du.
- Lan eta Justizia Sailak, Bake Epaitegiaren 2018ko funtzionamendu-gastuak bidaltzeko eskatu du.
- Ogasun eta Ekonomia Sailak, Europa Euskadin izeneko gazteen 8. argazki-lehiaketaren berri eman du.

Consistorial firmado y sellado, remite liquidación de la agencia ejecutiva del mes de abril

- Desarrollo económico y Equilibrio territorial convoca sesión del Consejo Territorial de Administración local y finanzas el 20.05.2019, informa de la resolución de la convocatoria de obras menores y relaciones vecinales 2019 y comunica la concesión de subvención la Ayuntamiento para la obra solicitada de mejora del depósito de Guillerna.
- Servicios Sociales solicita datos estadísticos
- Agricultura comunica autorización de corta de arbolado de un particular y remite actas de entrega de aprovechamientos de Aldarro y Aretxaltuaga adjudicados a Olmos Forestal S.L. y Forestal Frías S.L. respectivamente, y actas de contada en blanco de Pepetxiki y Fresnal adjudicado a esta última y del lote de Aretxaltuaga.

**4.2.- Gobierno Vasco:**

- Salud pública remite la declaración responsable a cumplimentar con carácter previo a la reapertura de las piscinas municipales que está prevista para el sábado 15 de junio 2019 y remite cartelería sobre salud (*vivir sin tabaco elige tu momento*).
- Osakidetza presenta la solicitud de licencia para la construcción del nuevo centro de saludo.
- Arkaute remite oferta formativo para el próximo curso 2019/2020.
- Empleo y Políticas Sociales presenta el programa Udal Gizarte Ekintza Berrituz. Y Lanbide remite nómina RGI del mes de mayo 2019.
- Trabajo y Justicia requiere remisión de gastos de funcionamiento del Juzgado de Paz del año 2018.
- Hacienda y Economía informa del 8º Concurso juvenil de fotografía sobre Europa en Euskadi.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

- Segurtasun Sailak, Palatuko pintada kentzeko eskatu du (alkateak esan du ingurura hurbildu bada ere ez duela ikusi) eta kirol-proben berri eman du.

- Hezkuntza Sailak, Udalaguntza 2019 deialdiaren ebazpena bidali du, eta udalari OAMIPek eta Murgia BHIk eskatutako lanetarako diru-laguntza eman du.

**4.3.- Epaitegiak:**

- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak, ARABAKO LANKETA SLU enpresak jarritako errekurtsoaren inguruko antolaketa-eginbidea bidali du, eta ondoren, aipatu enpresak atzera egiteagatik prozedura amaitutzat dagoela dioen dekretua.

- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak, Sarriako 80/5 lursailaren (Ruiz and.) hirigintza-aprobetxamenduaren inguruko epaiaren aurrean jarritako 1154 errekurtsoaren aurka jarritako errekurtsoa onartzen ez duen autoa bidali du.

**5.- UDALAREN ETXEBIZITZA BABESTUAK ALOKATZEKO OINARRIAK.**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zerbitzuko teknikariek udalaren jabetzako Maisuen Etxeko etxebizitzen alokairu babesturako oinarrien inguruan emandako informazioa jakinarazi du alkateak; dirudienez, BOE gisa sailkatuta ez daudenez, juridikoki eztabaidagarria da horien araudia (2012ko urriaren 15eko Agindua) aplikagarria izatea, eta zentzu horretan, baremtzeko orduan egoki irizten dituen irizpideak ezartzeko eskumena du udalak (ez ordea, prezioak, taldeen esleipen-hurrenkera etxebizitzen azaleraren arabera, eta legeak ezarritako hainbat gai).

- Seguridad requiere retirada de pintada en Palatu, manifestando el Alcalde que no lo ha visto pese a haberse acercado a la zona e informa sobre pruebas deportivas.

- Educación remite resolución de la convocatoria Udalaguntza 2019 concediendo al Ayuntamiento subvenciones para las obras solicitadas del CPVO e IES de Murgia.

**4.3.- Juzgados y Tribunales:**

- Juzgado de lo contencioso-administrativo nº 2 de Vitoria-Gasteiz remite diligencia de ordenación en el recurso interpuesto por ARABAKO LANKETA SLU y posteriormente un decreto por el que comunica terminado el procedimiento por desistimiento de la citada mercantil.

- Juzgado de lo contencioso-administrativo nº 3 de Vitoria-Gasteiz remite auto desestimatorio del recurso interpuesto en el recurso 1154 sobre el que había recaído sentencia en relación al aprovechamiento urbanístico de la parcela 80/5 de Sarría (Sra. Ruiz).

**5.- BASES DEL ARRENDAMIENTO DE LAS VIVIENDAS PROTEGIDAS MUNICIPALES.**

El Alcalde da cuenta de la información suministrada por las técnicas del Servicio de Vivienda de Gobierno Vasco sobre las bases para el arrendamiento protegido de las viviendas de la Casa Maestros de titularidad municipales; a su parecer, al no estar calificadas como VPO, es discutible jurídicamente que le sea aplicable la normativa de las mismas (Orden de 15 de octubre de 2012), y en ese sentido el Ayuntamiento tiene capacidad de establecer los criterios que estime pertinentes a la hora de baremar (no así los precios, orden de adjudicación por colectivos en función de la superficie de las

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

viviendas, y determinadas cuestiones que vienen impuestas por ley).

Ez dago inolako arazorik etxebizitza-eskatzaileen erreferentziazko erregistro gisa Etxebiderena izateko, datuak lagako lizkigukete (eta dagoeneko bidali digute zerrenda bat BOE erosi eta alokatzeko izena emana duten Zuiako eskatzaile-kopuruarekin).

No hay problema alguno en tener como referencia de registro de demandantes de vivienda el de Etxebide, nos cederían los datos (de los que ya nos han enviado una relación con el nº de demandantes de VPO en compra y en alquiler en Zuia).

Oinarriak kudeatu eta etxebizitzak esleituko dituena Etxebide izateko aukera dela-eta, ezetz esan zuten; Alokabideri eska lekioke etxebizitzak kudeatzeko.

Respecto a la posibilidad de que sea Etxebide quien gestione las bases y adjudique las viviendas, dijeron que no; se podría solicitar la gestión de las viviendas a Alokabide.

Bertaratuko batzuek gaia mahai gainean uztea proposatu dute, kontuan izanda BOE araudian eskatutako baldintzak bete behar ez direnez, azterketa zehatzagoa egitea eskatzen duela. Kontuan izango den erregistroa erabakitzea komeni dela ere adierazi da, udalarena baldin bada, sortu egin beharko delako eta, Etxebiderena izanez gero, interesatuei izena emateko aukera eman beharko baitzaie, izan ere, kontsultatutako langileek emandako informazioaren arabera, inskripzioa ez da berehalakoa, hilabeteko epea dutelako dokumentazioa zuzentzeko, eta ondorioz, luza liteke.

Por parte de algunos de los presentes se propone dejar el tema sobre la mesa, teniendo en cuenta que al no tener que sujetarse a las condiciones exigidas en la normativa de VPO requiere que se haga un estudio más detallado; también se pone de manifiesto la conveniencia de decidir el registro que se tendrá en cuenta, porque si es el municipal habrá que crearlo y si es el de Etxebide habría que dar oportunidad a las personas interesadas que se inscriban, teniendo en cuenta que según información facilitada por el personal consultado, la inscripción no es inmediata porque disponen de un mes para pedir la subsanación de documentación, con lo cual podría alargarse.

Azaldutakoa ikusirik, ondorengo hau ERABAKI DU Udalbatzak aho batez:

A la vista de lo expuesto, la Corporación por unanimidad ACUERDA:

LEHENENGOA: Maisuen Etxeko udal-etxebizitzak alokatzeko oinarrietan Etxebiderena erreferentziazko erregistrotzat ezartzea, gaurko egunez izena emana ez duten pertsonek udalak ezarritako epea amaitu baino lehen, hots, 2019ko uztailaren 15aren aurretik, inskribatzeko aukera izan dezaten, eta dagozkion ondorioetarako nahikoa publizitate emateko.

PRIMERO: Establecer como registro de referencia en las bases de arrendamiento de las viviendas municipales de la Casa Maestros el de Etxebide, al objeto de posibilitar que personas que a fecha de hoy no lo estén puedan inscribirse con carácter previo a la finalización del plazo establecido por el Ayuntamiento que es el 15 de julio de 2019 inclusive y darle suficiente publicidad a los efectos oportunos.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

BIGARRENA: Gainerako baldintzen azterketa mahai gainean uztea.

SEGUNDO: Dejar sobre la mesa el estudio del resto de las condiciones.

**6.- UDAL LANGILEEK LANALDIAREN INGURUAN EGINDAKO ESKAERA.**

**6.- SOLICITUD DEL PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO RESPECTO A LA JORNADA LABORAL.**

Alkateak udal-langileek aurkeztutako idazkiaren berri eman du, zeinetan Udalhitzen aurreikusitako lanaldia (1592 ordu) ezartzea eskatzen baitute, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak, laugarren xedapen indargabetzailean, indargabetu egiten baitu 2012rako Aurrekontuei buruzko Legearen 71. xedapen gehigarria, non asteko lanaldia 37,30 ordukoa (1.642 ordu) ezarri baitzen.

El Alcalde da cuenta del escrito presentado por el personal del Ayuntamiento que solicita la aplicación de la jornada laboral previstas en el Udalhitz de 1592 horas, una vez derogada por la Ley de presupuestos generales del estado para el año 2018 en su disposición derogatoria cuarta, la disposición adicional 71 de la Ley de Presupuestos para el año 2012 que estableció la jornada de 37,30 horas semanales (1.642).

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

LEHENENGOA.- Udal-langileei gaurtik aurrera Udalhitzen lanaldia (1.592 ordu urtean) ezarriko zaiela onartzea, eskatzaileek aurkeztutako egutegi-proposamenaren arabera.

PRIMERO.- Aprobar la aplicación de la jornada de Udalhitz al personal del Ayuntamiento (1.592 horas anual) desde el día de hoy, conforme a la propuesta de calendario presentada por los solicitantes.

19/06/10etik 19/09/30era: 8:00etatik 15:00etara
19/10/01etik 19/12/31ra: 7:45etik 15:00etara
Abenduaren 23 eta 30ean: 9:00etatik 14:00etara.

Del 10/06/19 al 30/09/19: de 8:00 a 15:00 horas
Del 01/10/19 al 31/12/19: de 7:45 a 15:00 horas
23 y 30 diciembre: de 9:00 a 14:00 horas

**7.- ONDARE ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ETA ELKARTEETAN PARTE HARTZEAREN AITORPENEN EREDUAK ETA TOKIKO ORDEZKARIEN BATERAEZINTASUNEN ETA JARDUEREN AITORPENAREN EREDUA ONARTZEA.**

**7.- APROBACIÓN DE MODELOS DE DECLARACIONES DE BIENES Y DERECHOS PATRIMONIALES Y DE PARTICIPACION EN SOCIEDADES Y MODELO DE DECLARACIÓN DE INCOMPATIBILIDADES Y ACTIVIDADES DE REPRESENTANTES LOCALES.**

Kargua uzterakoan zein hartu baino lehen Udalbatzako kideek aurkeztu beharreko ondorengoen aitorpenen ereduak azaldu ditu idazkariak: ondare-ondasun eta -eskubideena, elkarteetan parte hartzearena eta tokiko ordezkarien bateraezintasunen eta jarduerena.

La Secretaria da cuenta de los modelos de declaraciones de bienes y derechos patrimoniales, participación en sociedades y declaración de incompatibilidades y actividades de los representantes locales que han de presentarse por las personas miembros de la Corporación tanto al cesar en su mandato como con carácter previo a la toma de posesión de sus cargos.

Udalbatzak aho batez onartu ditu eredu horiek, hau da, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak proposatutakoak.

La Corporación por unanimidad aprueba dichos modelos que son los propuestos por EUDEL-Asociación de Municipios Vasco.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 9:15ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la reunión, siendo las 9:15 horas de lo que como Secretario certifico.

Idazkaria / La Secretario,

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*